

ZEZEN-ZUSKOA

(IDIYARENA-REN SOÑUAN)

Danboliñaren jirak kalean
daramatzi jendeak airean
chistuaren
ta atabalen
soñu alayean.

Erriko biztanle guziak
plazara dirade etorriak,
arratzeko
zezeneko
suak ekarriak.

¡O Donostiko zezen-zuskoa
izan zaitetz zorionekoa!

Irtena da zezena arkupetik,
chingarra dariola atzealdetik,
danbadaka,
ta jiraka
jendeen tartetik.

Zalapart artan zenbat nazpill,
zenbat karrasi, zer iskanbill,
itzumuka,
trunbulluka,
jende dena dabill.

¡O zu, zezen onen egillea,
izan zaitetz gloriz betea!

Damacho gazte ta galai fiñak
elkarri adi bat ezin egiñak,
arkupetan,
kirketan,
¡ay, zer alegiñak!
Zezen-zuskoa bada aurrean,

iges egiñ nairik asmoan,
zeren larri
diran jarri
elkarren ondoan.

¡O zenzen pizkor chingar jariyo,
Zenbat kontu zure meriyo!

Su kurpillak dijoaz astera,
zezen-suskoa igo dute ostera,
argi pillak,
su bonbillak
dijoaz aidera.

Zeñen argi politak dira
maite degunari begira,
bat batetan,
begietan
ikusten badira,

¡O bai, dira, bai, chit chingartiak
biotz-zusko baten argiak!

Bejondaizula, zezen-zuskoa,
Donostiaren inbenzioa,
gazteentzat
ta zarrentzat
fest gaiñ-gañekoa.

Ez, bada, jendeak, nagitu,
plazara joan gabe ez gelditu,
far asko egiñ,
dantzatu ariñ
ta asko dibertitu.

¡Zezen-zusko eder on degizula,
gaur ta beti bejondaizula!